



A ETA B

Hara hemen pertsonaia antagonikoak dituzten gaiak.

Azter dezagun gai bakoitzean:

- Gure ustez, zein pertsonaiak du paper errazagoa egoera horretan?
- Eta bururatzen al zaigu biderik pertsonaia zailena duenak ere distira egin dezan?
- “Bere aldera” ekar dezan dialektika?

LANGABEA ETA BANKUKO NAGUSIA

A, zu langabezian zaude, eta etxeko hipoteka ordaindu ezinik daramatzazu hilabeteak.

B, zu zara bankuko nagusia, eta gaur deitu egin diozu A-ri.

Ordaintzen ez badu, bankuak etxea kenduko diola esan diozu.

BASAMORTUAN OPTIMISTA ETA PESIMISTA

Basamortuaren erdian galdu zareten bi lagun zarete.

A, zu izaeraz optimista zara erabat, eta baikor ikusten duzu dena.

B, zu, aldiz, izaeraz ezin pesimistagoa zara, eta oraintxe dena zaizu beltzean beltz.

ESKI IRAKASLEA ETA HASIBERRIA

A, lehen aldiz joan zara gaur eskiatzera.

B, zu zara eski irakaslea.

Maldan behera abailan zoaztela, A-k zuhaitza jo du... beste behin.

HONDARTZAN BILUZIK ETA BAINUJANTZIAREKIN

Bi ezagun zarete.

Espero ez zenutela, hondartza nudista batean topatu duzue elkar.

A, zuk bainujantzia daramazu. B, zuk ez.

ZAKUR TXIKIAREN ETA ZAKUR HANDIAREN JABEAK

Zuen txakurrak paseatzen ari zinetela, parkean aurkitu duzue elkar.

A, zuk artzain txakur aleman handi bat daramazu, soka lotuta.

B, zuk arratoi txakur hanka-motza, aske.

Arratoi txakurra zaunka eta zaunka ari zaio artzain txakur alemanari.